

Euskaraldia Kultura eta Hizkuntza Politika Sailean.

Kultura Sailburuordetzako eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzako ariguneeen azterketa

1. Sarrera

Informazio asko jaso dugu saileko langile guztiok Euskaraldiari buruz, eta gutako askok ahalegin berezi bat egin dugu hamabost egun horietan euskaraz gehiago hitz egiteko gure zerbitzuko lankideekin, ariguneko lankideekin. Horregatik, inongo neurketarik egin gabe, badakigu gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin egin dugula euskaraz tarte horretan, baina beti dator ondo zenbatzea eta jasota uztea zein izan den ahozko erabileraren aldea. Horretara dator txostentxo hau, zenbakietan jasotzera Euskaraldian zehar gure sailean egindako ahalegina. Neurketa kuantitatibo bat da honako hau.

Euskaraldiaren edizio honetako bereizgarriak ariguneeak izan dira. Gure sailean 8 arigune izendatu ditugu, zuzendaritza guztiak barne izanik. Bost arigunetako erabilera aztertu dugu: Zerbitzu Zuzendaritza eta Kabinetea, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza (Lakua), Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza (Fadura), Kultura Ondarearen Zuzendaritzako Zentroa, eta Bilboko Artxibo Nagusia. Arigune horietako azterketa bereizitua egin dugu. Azterketatik kanpo gelditu dira bi arigune, Hizkuntza Politika Sailburuordetza (HPS) eta Kultura Sustatzeko Zuzendaritza, ahozko erabilera euskaraz baita osorik HPSn eta neurri handi batean Kultura Sustatzeko Zuzendaritzan.

Gure asmoa zen arigune guztietan bilera presentzialak egitea eta mintzagrama (erabilera neurtzeko erabiltzen dugun harreman-taula, proiektatzen duguna bileretan) baten bitartez islatzea zein zen euskararen erabilera Euskaraldiaren aurretik, eta konpromiso txiki bat hartzea lankideekin, gehiagotan euskaraz aritzeko. Pandemia dela eta ez da posible izan aurrez aurre egitea, eta emailen bitartez egin behar izan ditugu mintzagrama horiek, Euskaraldiaren aurretik eta ostean.

Gure saileko Kultura Sailburuordetzan eta Kirol Zuzendaritzan, gaitasunaren aldetik, hizkuntza eskakizunen egiaztatzeari begira, oso egoera onean gaude euskara erabiltzeko; tamalez, hori ez da islatzen eguneroko jardunean, eta, aztertutako zerbitzuetan, batez beste, elkarriketen % 37 gaztelaniaz ziren programa hasi aurretik. Euskaraldian zehar % 18ra jaitsi da kopuru hori. Euskaraz, elkarriketen % 50 egiten genuen euskaraz, eta Euskaraldian zehar % 71ra igo dugu. Elkarriketen % 11 ele bietan egin ditugu. Emaitzak hobeak izan zitezkeen, gure sailean ia denok baikara gai euskaraz egiteko, baina baloratu behar dugu egindako ahalegina.

Euskarazko erabilera areagotzeko programetan, Euskaraldia kasu, ohikoa da erabilera jaitea programa ostean. Gure erronka da eustea izandako gorakadari. Eutsi behar diogu irabazitakoari!



2. Datu orokorrak. Aztertutako ahozko harremanak Euskaraldiaren aurretik eta Euskaraldian zehar


2.1. Datu orokorrak

EUSKARALDIA Kultura Saila	gaztelaniaz		bietan		euskaraz	
		%		%		%
Aurretik	272	37	91	13	363	50
Euskaraldian zehar	114	18	69	11	442	71


2.2. Datu zehaztuak


Euskaraldiaren aurretik	Ahozko harremanak							
	Lankide-kopurua	Harreman-kopurua	Gaztelaniaz	%	Ele bietan	%	Euskaraz	%
Zerbitzu Zuzendaritza+ Kabinetea	15	254	70	31	19	7	165	62
Kultura Ondarearen Zentroa	15	223	138	62	24	11	61	27
Euskadiko Artxibo Historikoa	7	42	5	12	7	17	30	71
Kirol Zuzendaritza Lakua	7	52	4	8	20	37	28	55
Kirol Zuzendaritza Fadura	13	155	55	35	21	14	79	51
Guztira	57	726	272	37	91	13	363	50
Euskaraldian zehar	Ahozko harremanak							
	Lankide-kopurua	Harreman-kopurua	Gaztelaniaz	%	Ele bietan	%	Euskaraz	%
Zerbitzu Zuzendaritza+ Kabinetea	15	244	49	20	13	5	182	75
Kultura Ondarearen Zentroa	10	134	26	20	34	25	74	55
Euskadiko Artxibo Historikoa	7	41	0	0	1	2	40	98
Kirol Zuzendaritza Lakua	7	52	0	0	4	8	48	92
Kirol Zuzendaritza Fadura	13	154	39	25	17	11	98	64
Guztira	52	625	114	18	69	11	442	71

2.3. 1. Grafikoa. Datu orokorrak Ahozko erabilera Euskaraldiaren aurretik eta Euskaraldian zehar




2.4. 2. Grafikoa. Arigune bakoitzaren egoera.





2.5. 3. Grafikoa. Euskararen erabilera, aurretik eta Euskaraldian



3. Saileko arigune bakoitzeko datuak.

3.1. Zerbitzu Zuzendaritza eta Kabinetea


Euskaraldiaren aurretik

15 lankideren elkarrizketak aztertu ditugu, eta haien arteko 267 ahozko harreman desberdin.

Euskaraldian zehar

15 lankideren elkarrizketak aztertu ditugu, eta haien arteko 244 ahozko harreman desberdin.

EUSKARALDIA Zerbitzu Zuz.+ Kabinetea	gaztelaniaz	%	bietan	%	euskaraz	%
Aurretik (267 harreman)	83	31	19	7	165	62
Euskaraldian (244 harreman)	49	20	13	5	182	75



Gaztelania hutsean:

Euskaraldia hasi aurretik, ahozko harremanen % 31 egiten ziren gaztelaniaz. Euskaraldian

Euskaraldian zehar, % 20

Ele bietan (bietan berdin)

Euskaraldia hasi aurretik, ahozko harremanen % 7 egiten ziren gaztelaniaz.

Euskaraldian zehar, % 5

Euskaraz (euskaraz gaztelaniaz baino gehiago edo beti euskaraz)

Euskaraldia hasi aurretik, ahozko harremanen % 62 egiten ziren euskaraz. Euskaraldian zehar, % 75

3.2. Kultura Ondarearen Zentroa


Euskaraldiaren aurretik

15 lankideren elkarrizketak aztertu ditugu, eta haien arteko 223 ahozko harreman desberdin.

Euskaraldian zehar

10 lankideren elkarrizketak aztertu ditugu, eta haien arteko 134 ahozko harreman desberdin. Aipagarria da oso erantzun gutxi jaso ditugula, eta erantzunen artean, telelana eta pandemia dela eta, harreman gutxiago egon dira Euskaraldiaren aurretik baino. Horrek baldintzatu ditu emaitzak.

Euskaraldia Kultura Ondarea	gaztelaniaz	%	bietan	%	euskaraz	%
Aurretik (223 harreman)	138	62	24	11	61	27
Euskaraldian (134 harreman)	26	20	34	25	74	55



Gaztelania hutsean:

Euskaraldia hasi aurretik ahozko harremanen % 62 egiten ziren gaztelaniaz.

Euskaraldian zehar, % 20.

Ele bietan (bietan berdin):

Euskaraldia hasi aurretik, ahozko harremanen % 11 egiten ziren ele bietan.

Euskaraldian zehar, % 25

Euskaraz (euskaraz gaztelaniaz baino gehiago edo beti euskaraz):

Euskaraldia hasi aurretik, ahozko harremanen % 27 egiten ziren euskaraz.

Euskaraldian zehar, % 55

3.3. Euskadiko Artxibo Historikoa


Euskaraldiaren aurretik

7 lankideren elkarrizketak aztertu ditugu, eta haien arteko 42 ahozko harreman desberdin.

Euskaraldian zehar

7 lankideren elkarrizketak aztertu ditugu, eta haien arteko 41 ahozko harreman desberdin.

Euskaraldia Artxiboa	gaztelaniaz	%	bietan	%	euskaraz	%
Aurretik (42 harreman)	5	12	7	17	30	71
Euskaraldian (41 harreman)	0	0	1	2	40	98



Gaztelania hutsean:

Euskaraldia hasi aurretik, ahozko harremanen % 12 egiten ziren gaztelaniaz.

Euskaraldian zehar, % 0.

Ele bietan (bietan berdin):

Euskaraldia hasi aurretik, ahozko harremanen % 17 egiten ziren ele bietan.

Euskaraldian zehar, % 2

Euskaraz (euskaraz gaztelaniaz baino gehiago edo beti euskaraz):

Euskaraldia hasi aurretik, ahozko harremanen % 71 egiten ziren euskaraz.

Euskaraldian zehar, % 98

3.4. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza. Lakua


Euskaraldiaren aurretik

7 lankideren elkarrizketak aztertu ditugu, eta haien arteko 52 ahozko harreman desberdin.

Euskaraldian zehar

7 lankideren elkarrizketak aztertu ditugu, eta haien arteko 52 ahozko harreman desberdin.

Euskaraldia Kirol Lakua	gaztelaniaz	%	bietan	%	euskaraz	%
Aurretik (52 harreman)	4	8	19	37	28	55
Euskaraldian (52 harreman)	0	0	4	8	48	92



Gaztelania hutsean:

Euskaraldia hasi aurretik ahozko harremanen % 8 egiten ziren gaztelaniaz

Euskaraldian zehar, % 0

Ele bietan (bietan berdin)

Euskaraldia hasi aurretik, ahozko harremanen % 37 egiten ziren.

Euskaraldian zehar, % 8

Euskaraz (euskaraz gaztelaniaz baino gehiago edo beti euskaraz)

Euskaraldia hasi aurretik, ahozko harremanen % 55 egiten ziren.

Euskaraldian zehar, % 92

3.5. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza. Fadura


Euskaraldiaren aurretik

13 lankideren elkarrizketak aztertu ditugu, eta 155 ahozko harreman desberdin.

Euskaraldian

13 lankideren elkarrizketak aztertu ditugu, eta 154 ahozko harreman desberdin.

Euskaraldia Kirol Fadura	gaztelaniaz	%	bietan	%	euskaraz	%
Aurretik (155 harreman)	55	35	21	14	79	51
Euskaraldian zehar (154 harreman)	39	25	17	11	98	64



Gaztelania hutsean:

Euskaraldia hasi aurretik ahozko harremanen % 35 egiten ziren gaztelaniaz.

Euskaraldian zehar, % 25

Ele bietan (bietan berdin)

Euskaraldia hasi aurretik, ahozko harremanen % 14 egiten ziren.

Euskaraldian zehar, % 11

Euskaraz (euskaraz gaztelaniaz baino gehiago edo beti euskaraz)

Euskaraldia hasi aurretik, ahozko harremanen % 51 egiten ziren.

Euskaraldian zehar, % 64

2020ko abenduan

Jabier Osés

Hizkuntza Normalizazioko teknikaria

Kultura eta Hizkuntza Politika Saila